



# Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina  
24. alea | 2007ko Azaroa / B | [nazioartea@euskaleskola.org](mailto:nazioartea@euskaleskola.org) |  
<http://www.euskaleskola.org/>

## MUNDUAN, IKASGAIK NONAHI

Euskal Herriak Bere Eskolak material pedagogiko berria ekoiztu du ikastetxeetan erabil dadin. Egutegi formatua duen poster honetan aurretik egindako “Mapa Historikoa”ren bertsio berria eskaintzen dugu.



## BOLOGNAREN AURKA BERRIRO

Azkeneko aste hauetan hainbat mobilizazio egon dira Bolgnaren aurka, aurreko Herriek Bere Eskolaren alean esaten genuen bezala.

Joan den Azaroaren 15ean PMDUP (Plataforma Mobilizadora en Defensa de la Universitat Publica) plataformak manifestaldia deitu zuen Bologna Prozesuaren aurka Bartzelonan eta SEPCC (Sindicat d'Estudiants dels Països Catalans) Katalan Herrietako beste hiri nagusietan. Bartzelonan 4.000 ikasle baino gehiago bildu ziren ibilbide ez-ohikoa izan zuen manifestaldi batean: lehenengo aldia zen manifestaldia Unibertsitate baten barruan bukatzen zela. Horrela ekitaldia Pompeu Fabra Unibertsitatearen barruan egin zuten, bertan grebarako jarri zituzten trabak salatu asmoz. Aurreko egunean ikasle talde batek Filologia eta Historia fakultatea okupatu zuen eta ordu erdira poliziak bertatik kanporatu zituen.

Ikasle Abertzaleak, bestalde, Bolognaren aurkako bozka gisa aldarrikatu zuen eurei bozka ematea UPVn egin berri diren hauteskundetan. Datu zehatzak ez dauden arren dirudienez IAK eskuratu du gehiengoa eta baliteke gehiengo osoa ere izatea. Honekin batera hauteskunde hurrengo egunean Bolognaren aurkako ahotsak nahikoa direla aldarrikatu eta manifestaldi nazionala deitu zuten Leioan abenduaren 20rako.

Frantziar estatuan hilaren 20rako deitua zegoen Greba Orokorren ostean asko dira argitaratu diren datuak. Ikasleen aldetik Pécresse Legearen aurkako deialdiak arrakasta handia lortu zuen. 23 unibertsitate guztiz itxiak agertu ziren goiz horretan, horietako batzuk itxiera administratiboa izan zutelarik. Bordelen 22rarte luzatu zuten blokeoa, 4000 ikaslerekin. Pabean 2000 ikaslek hartu zuten parte 20an eta 21ean egin ziren blokeotan eta azken egun honetan egin zen Asanblada Orokorrean. Unibertsitate batzuetan grebetan parte hartu edo ez erabakitzeke erreferendumak egin dira azkeneko astean, baiezkoa izan delarik bozka gehienetan. Trenbideetako greba behin kenduta oraindik ikusteke dago zein jarrera hartuko duten ikasle eragileek, batez ere lege honek izan duen eragina kontuan hartua.

*Informazio gehiagorako:*

<http://www.sepc.cat>

<http://www.ikasleabertzaleak.org> eta <http://www.gaztesarea.net/arbela>

<http://www.jcr-red.1901.org/spip.php?rubrique211>

<http://www.jcr-red.1901.org/spip.php?article1020> (Parte-hartze datuak egunez-egun eta unibertsitatez-unibertsitate)

[http://www.unef.fr/delia-CMS/une/article\\_id-2217/topic\\_id-160/a-valerie-pecresse-les-etudiants-veulent-dire...-211107.html](http://www.unef.fr/delia-CMS/une/article_id-2217/topic_id-160/a-valerie-pecresse-les-etudiants-veulent-dire...-211107.html)

## VENEZUELAN KOLPEA PRESTATZEN OTE?

Azkeneko astetan nahiko berri egon dira Venezuelaren inguruan, batez ere Hugo Chavez eta espainiako erregearen arteko talka dela eta. Baina aste batzuk lehenagotik izan dira berriak ikasle mobilizazioak direla eta.

Bitxia da ikustea nola munduko leku gehienetan ikasleak “boterearen aurka” aritzen diren, hau da, *stablishment*aren aurka. Honek historikoki ikasle mugimenduak ezkerrean kokatzea ekarri du. Baina Venezuelen ezberdina da, Chavezen aurkakoak eta kapitalismoaren aldekoak diren ikasle mugimenduak ere badirelako. Venezuelako kasua bitxia da: Hugo Chavezen aurkako estatu-kolpearen ondoren gutxi izan dira eskuinari geratu zaizkion bideak boterea berreskuratzeko. Azkeneko urtetan telebista erabili izan dute espektakulua politikagatik trukatzeko, baina ez die funtzionatu. Konstituzio berriak hezkuntza unibertsitarioaren hainbat puntu ukitzen dituztela eta eliteetako ikasle mugimenduak sortu dira. Hauek euren burua mugimendu zibikotzat dute, hau da, inongo ildo politikorik ez omen duen ikasle mugimendutzat. Mugimendu honen helburu bakarra erreforma sozialistekin bukatzea litzateke eta, horretarako, medioek eskaintzen dituzten bideak hartuko litzukete (behin eztabaidatzeko onartu ondoren kateatzea, kongresuan hitza eman ondoren ezer esan gabe joatea...) inongo biderik eman gabe proiektuen eztabaidarako.

Hauek eta azkeneko astetan egon diren bestelako ekimenak medioetan oso ozen agertu dira eta asko dira Venezuelen beste kolpe bat prestatzen ari ote denaren susmoa dutenak.

*Informazio gehiagorako:*

<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=59119>

<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=58814>